



Txintxarri Txiki «pozik» da Kataluniako emanaldiaz

ALEGIA ▶ Kontzertu arrakastatsua eman dute alegiarrek asteburu honetan Begues herrian

LANA ▶ Abesbatzeko 24 lagun izan dira; «egindako lanarekin» gustura da Idoia Iraola zuzendaria ▶ 5

IBARRA ▶


Gimnastika eskolaren emaitza onak

Eskolarteko lehiari aritu dira ▶ 6

Jon Rekondo, bere mailako onena Urrezko Aizkolarien Lehiaketan

LEITZA ▶ Hurrengo urtean 25 urtez beheko mailan finalerdietan izateko txartela lortu du 20 urtez behekoa irabazita ▶ 7

JAIONE ASTIBIA



ONINTZA LASA ▶ EA-EAJ

«Etxeko lanak ondo eginda iritsi da koalizioa bozketara»

«Hemengo erabakia errespetatzea» espero du tolosarrak ▶ 2

Onintza Lasa. IMANOL GARCIA

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **ARANDIA jatetxean 4 lagunentzako bazkari edo afari eder bat zozketatuko dugu**



JATETXEA

Telf. 943 65 22 62

ALTZO



TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:
68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdiak:

943 46 11 11

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amarozk dispens.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerbitzua:

693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitxaran autob.: 948 221015

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste, J.M. Gernikako
Arbola 3 (Tolosa) 943 65 10 40
Plaza, M. Elbarren 95 (Leitza).
112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko
hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldekohitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko
hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldekohitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldekohitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldekohitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldekohitza.info

ONINTZA LASA ▶ EA-EAJ-KO HAUTAGAIA ETA EA-KO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA



IMANOL GARCIA

«Etxeko lanak ondo eginda iritsi da koalizioa hauteskundeetara»

Autogobernuaren bidez «emaitza hobek» lortzea eta «hemen erabakitakoa errespetatzea» espero du tolosarrak

JOXEMI SAIZAR

Lau urte daramatza Eusko Legebiltzarrean eta igandeko hauteskundeetan EA-EAJko zerrendetan 5. postuan dihoa, berriro ateratzeko moduan. EAKo komunikazio arduraduna da eta zinegotzia Tolosako Udalan, Euskara eta Hezkuntza departamenduko arduraduna. Udaletxeko bulegoan hartu du HITZA dituzten asmoez mintzatzeko.

Zer dela eta animatu zara aurkeztera?

Urteak daramatzat Eusko Alkartasunan, erabat murgilduta nago, proiektuan sinesten dut eta lan egiten dut eta alderdiaren esanetara nago. Atzeko postuetan askotan joan izan naiz eta oraingoan gorago noa. **Nola dihoa kanpaina?** Mugitua. Aurrekoa ere tokatu zitzaidan. Esperientzia hartu dut, batez ere komunikazio arloan lan egin dudalako.

Zein da gaurko egitaraua [astelehen?]

Goizean propaganda banaketa Oñatin eta arratsaldean ekitaldi politikoa Bergaran. Gainera gaur nik hitz egin behar dut Egiabarrekina batera.

Zer eskaintzen diezue hautesleei?

Etxeko lanak ondo eginda iritsi da koalizioa hauteskundeetara: agindutakoa bete dugu, ekintzak ditugu, ez hitzak bakarrik. Datorren legealdia, datorren urteak bereziak izango dira, giltzarria, lehen aldiz autodeterminazio proposamen bat erabakiko dugulako. Argi gelditu da Euskal Herria nazio dela eta erabakitzeko eskubidea dugula. Horrek bat egin nahi dutenei eskatzen diegu bozka. Gu gara bidea, gizarite eskubide guztiak errespetatu, indibidualak eta kolektibok.

Independentzia aldarrikatzen ari al zara?

Ni independentzia zalea naiz, baina proposamen demokratikoa aurkeztu dugu eta gizarite esango du zer nahi duen. Nafarroa eta Ipar Euskal Herria ez ditugu ahaztu behar. Eraikuntza nazionala eta soziala batera egin behar dira. Oztopoak oztopo, autogobernuaren bidez emaitza hobek lortuko ditugu. Ea erabakitzeko aukera errespetatzen duten eta, ondoren, erabakitakoa errespetatzen duten. Orain arte joko

arauak hautsi dituzte PSE-EEk eta PPK, hemen erabakitakoa Madrilera eramane eta han baliorik gabe utzi. Hemen bizi garenok —denok, kanpotik etorritakoe ere bai— erabaki behar dugu. Ez da abertzaleen plana, denona baizik. Ala abertzale ez direnei eskubideak murriztu al zaizkie? Ez, eta daturik hala esaten dute. Alderantziz gertatzen da, lehen eta bigarren mailako eskubideak daude beraientzat. Duela urte pare bat euskararen eta gure kulturaren aurkako erasoak izan zen, *Euskaldunon Egunkaria* itxiz. Alderdien Legea onartu dute eta Batasuna illegalizatu dute. Norik urratzen ditu eskubideak?

Koalizioan zoazte EAirekin. Nola azpimarratzen duzue zuen nortasuna?

Lan txukuna egin dugu Jaurilarritan eta balantze ona egiten dugu. Arlo soziala da gure matraka. Orokorrean eta enpresa munduan aurrerapen handiak izan dira, baina pertsonak eta langileak ez ditugu ahaztu behar.

Nazio Etabaidagunean partaide zarete.

Konponbidea etor daitekeen

bide orotan egon behar da. El-karriren foroetan ere parte hartzen dugu. Baita Ibarretxeren proposamenaren ere. Denak da beharrezkoa eta denok gara beharrezkoak. Lan aktiboa egiten dugu Nazio Etabaidagunean eta alderdi guztiak hor egotea nahiko genuke.

Bi alderdik ezin izan dute hauteskunde hauetan aurkeztu.

Beti Alderdien Legearen aurka agertu gara, astakeria demokratikoa da. PPK eta PSOEk atera zuten aurrera. PSOEk urtebete darama Madrilan agintean. Talante berria agindu zuen, baina bi irribarrek ez da nahikoa, Alderdien Legea ez du indargabetu oraindik eta aplikatzen jarraitzen du. Botere judiziala interes politikoen baita jartzen dute. Alderdi batzuk joku zelaitik kanpora bota dituzte entzunketak, ikerketak eta modu txarrak erabiliz, inongo galbahe demokratikotik pasatu gabe.

Zein iritzi duzu EHAK alderdiari buruz?

Pertsona guztiak aukera izan behar dute bere bozka islatzeko. Horregatik begi onez ikusten dugu gizaritearen sektore baten sentimendu hori jaso ahal izatea EHAKen bidez.

Horrek zein eragin izango du emaitzetan?

Zifren dantza tranpa bat da. D'Hont legearen arabera, EHAK gabe, EHren 7 legebiltzarkide horien hutsunea PP eta PSE-EEren mesedetara zihuan. Ezin dugu pentsatu bere interesen kontrako legea egongo zutenik.

Igandera begira, emaitzekin zein kiniela egingo zenuke?

Ez naiz jokuzalea eta inkestez ez naiz fio. Gutxienez PP-PSE-EE baino boto bat gehiago ateratzea nahiko nuke, aitortu gabeko koalizioa, herri kontsulta planteatu ahal izateko babes handia izateko. Garrantzi handiko eta historikoan gaude. EA-EAJk bozka asko jasotzea nahi nuke kontsultarako, herriaren nahia bete ahal izateko. Urteetako lana ezin dugu arriskuan jarri, ezin dugu hor gelditzeko arriskua izan. Erantzunkizunerako deialdia egiten dut. Datuak hor daude. Herriak badaki nor erantzuten duen: hezkuntza alorrean oso ondo gaude, osasungintzan aurrera goaz, ingurumen kontuetan aitzindariak gara, inbertitzeko leku fidagarria da hau... Hartutako konpromisoak bete ditugu.

Jaurilaritzako sailburu bezala ikusten al duzu zure burua?

Garrantzitsua zauden lekuetan lan txukuna egitea da. Legeak dio zerrendetan %50ak emakumeek izan behar dutela eta gobernuan %40ak.

SALTZAILEA

behar da jornada erdira umeen arropa dendarako

Euskara dakiena.

Kurrikulum-a bidali argazkiarekin
Gudari 8, 5.ezk • TOLOSA

HITZALDIA ▶

Solasaldia HHIIn, tsunamien ondorioei buruz

Tolosako Helduen Hezkuntza Iraunkorrak (HHI) hitzaldia antolatu du gaurko. *El tsunami y sus consecuencias. ¿Que se puede aprender desde otra mirada de la realidad?* izenburupean, Delia Lopez aditua izango da hizlari. Arratsaldeko lauretan hasiko da saioa, ikastetxean bertan. Solasaldia «guztiei irekia» dela adierazi dute antolatzaileek.

MENDIA ▶

Huescako Pirinioetara Oargirekin

Oargi elkarteak mendi irteera antolatu du datorren astebururako, hilaren 16a eta 17a. Huescako Pirinioetara (Espainia) joango dira oraingoan elkarrekin, Peña Forca (2.390 metro) eta Petraficha (1.958 metro) mendiak igotzeko asmoarekin. Joan nahi duenak 637 83 03 80 telefono zenbakira deituta eman behar du izena, lehenbailehen.

GAZTERIA ▶

Tau-ren partida ikustera, Gazte Topagunetik

Gazte Topaguneak Gasteizera irteera antolatu du larunbaterako, Tau-Granada saskibaloia partida ikusteko (19:30). Topagunean bertan eman daiteke izena, 6 euroren truke. 17:00etan aterako dira Triangulotik, eta 23:30-24:00ak aldera itzuliko dira. Gurasoen baimena, nortasun agiria edo kopila, Osakidetzaiko txartela edo kopila eta afaria eman behar dira.

HEZKUNTZA ▶

Graduatu titulu probetarako izen-ematea zabalik

Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba libreak egingo dituzte, maiatzaren 17an, Helduen Hezkuntza Iraunkorrean (HHI). Hilaren 27ra arte izena eman daiteke, ikastetxean (Igaralde. 943 67 26 60). Euskal Autonomi Erkidegoan bizi izatea, azterketa egunean 18 urte beteta izatea, eta DBHn matrikulaturik ez izatea dira bete beharreko baldintzak.

GIZARTEA ▶

Hitzaldia eta bideo emanaldia Gerontologikoaz

Gerontologikoaren aldeko plataformak hitzaldia eta bideo proiektioa antolatu du gaurko. *Gerontologikoa itxi da. Eta orain zer? Tolosaldeko egoera* du izenburua. Kultur Etxean 20:00etan izango da. Egoera eta Gipuzkoako gizarte zerbitzuen mapa azaltzeaz gain, Gerontologikoko egoiliarren eta senitatekoen iritzia jasotzen dituen bideoa emango dute.

GURE TXOKOA ELKARTEAREN 75. URTEURRENA ▶

Urteurren egunaren atarian, txistu emanaldia, gaur

Etzi beteko ditu 75 urte Gure Txokoa elkarteak; ospakizunekin jarraituz, txistu emanaldia, liburu aurkezpena eta Elkartearen Eguna egingo dituzte asteen

LEIRE MONTES

Etzi, hilaren 15a, beteko ditu 75 urte Gure Txokoa elkarteak. Urteurrena ospatzeko, Inauteri inguruan hasitako egitarauari jarraipena eman nahi diote elkartekoei. Hala, era guztiak ekitaldiak antolatu dituzte aste honetan; gaur bertan izango da lehen txistu kontzertua.

Aitor Arozena eta Garikoitz Mendizabal txistulariek eskainiko dute emanaldia elkartearen, 20:00etan. Aitor Arozena (Oiarzun, 1970) jatorriz Lizartzakoak diren Arozenatar txistularien laugarren belaunaldiko kidea da. 1987tik, Oiarzungo Lartaun txistulari taldeko zuzendaria da, eta Donostiako Udal Txistulari Bandako partaidea. 2001ean Euskal Herriko Txistulari Txapelketa irabazi zuen, Villabonan. Garikoitz Mendizabal (Zestoa, 1973), bestalde, Azpeitiko Izarraitz txistulari taldeko zuzendaria da. Gasteizko Udal Txistulari Banda zuzendu zuen 1997tik 2002ra. Egundak, Bilboko Udal Txistulari Banda zuzentzen du, eta Euskal Herriko Txistulari Elkarteak lehendakaria da. 1994. eta 1996. urteetan Euskal Herriko Txistulari Txapelketa irabazi zituen.

Dantza bilduma (Ezezaguna, XIX. mendea), *Artzai kantak* (Eusebio Basurko), *Arizkun* (Herrikoiak), *Zaharra* (Ezezaguna, XVIII.-XIX. mendeak), *Bost taupada* (Jose Inazio Ansorena) eta *Hiru damatxo* (He-



Gure Txokoa elkarteak erromatarrez mozorrotu ziren Inauterietan, Astelenita egunean. IÑIGO TERRADILLOS

rrikioia; moldaketak: Sabin Birkandi eta Jose Luis Ansorena) obrak interpretatuko dituzte txistulariek.

Mikel Aranburu Urtasun Iruñeko Udal Txistulari Bandako partaidea, historiagile eta folkloristak egingo ditu aurkezle lanak.

Bestalde, urteurrenaren egunean bertan, ostiralean, Paco Arratibel idatzitako 75. urtemugaren liburua aurkeztuko dute Gure Txokoako elkartearen, 20:30ean. Iñaki Arratibel semeak eta elkarreko bazkideak aurkeztuko du saioa. Bertan izango dira ere Iñaki Garmendia Gure Txokoako lehendakaria, Jokin Bildarratz Tolosaldeko alkatea, eta Mitxel Ezkiaga kazetaria. Elkartearen

historia, argazki zaharrak eta abar jasoko ditu liburuak.

Elkartearen Eguna

Larunbatean, azkenik, egingo dute Gure Txokoako Elkartearen Eguna. Musika dute ikurrerako bat, eta gaurko txistu kontzertuan ezezik, larunbateko egitarauan ere present izango da; hain zuzen ere, goizean izango duten mezan parte hartuko du elkartearen abesbatzak. *Maiteari* (Ezezaguna), *Zatoz Jaungoiko* (J.R. Alfaro eta S. de Salaberri) eta *Cantate Domino* (G.F. Haendel) obrak interpretatuko ditu. Jesusen Zerbitzarietan izango da meza; izan ere, haiekin harreman handia du aspalditik Gure Txo-

koak: haurtzaindegia zenetik, urtero laguntza ematen dute; orain zahar etxea da, baina jarraitzen dute diruz laguntzen. Hamaiketako eta afaria ere egingo dute Elkartearen Egunean.

Eta, aurrerantzean ere, izango dute ospakizun. Kontzertuak, jardunaldiak, erakusketak, hitzaldiak, mendi irteerak... prestatu dituzte urtea amaitu bitarte.

EGITARAU ▶

Gure Txokoa elkarteak egitarau zabala prestatu dute 75. urteurrenarako:

GAUR, HILAREN 13A

20:00. Txistu emanaldia, elkartearen. Txistulariak: Aitor Arozena Muxika eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria. Aurkezlea: Mikel Aranburu Urtasun.

ETZI, HILAREN 15A

20:30. Gure Txokoa elkartearen 75. urtemugako liburuen aurkezpena, elkartearen. Hizlariak: Paco Arratibel egilea, Iñaki Garmendia elkarreko lehendakaria, Jokin Bildarratz Tolosaldeko alkatea eta Mitxel Ezkiaga kazetaria. Aurkezlea: Iñaki Arratibel, bazkidea eta egilearen semea.

LARUNBATA, HILAREN 16A

Elkartearen Eguna.
11:30. Meza, Jesusen Zerbitzarietan. Elkarteak abesbatza ariko da.
Ondoren. Mokadutxo, elkartearen.
20:30. Afaria, Fronton jatetxean.

KEY-LAN
Sarraigintza

Nafarroa etorb. 13 behe - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

MENDI-ALDE
Eguneroko menuak eta karta **Jatetxea**
Bataioak, Jaunartzeak,...

San Esteban auzoa, 39 • © 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

VILLABONA ▶ MENDIA

Aizkardikoen ibilaldia Arrigorriagatik Dimara igandean

'Euskal Herriko hiriburuak uztartuz' egitasmoaren baitan antolatu dute ibilaldia; izena emateko azken eguna, bihar



Igorren aurkitzen den San Antolin baselizatik igaroko dira mendizaleak. HITZA

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko hiriburuak uztartuz egitasmoaren baitan igande honetan, hilak 17, Arrigorriaga eta Dima arteko ibilaldia antolatu dute Aizkardi mendizale elkarteak.

Arrigorriagako eremu industrialetik abiatuko dira mendizaleak eta lehendabizi La Motako (342 metro) gainara igoko dira. Ondoren, aldapa handi baina motz bat igo eta gero, Artxanda (551 metro)

mendira iritsiko dira. Bertatik Bilboren ikuspegi ederra izango dute, baita aurreko etapan egindako bidearena ere (Gañekorta, Pagasarri...).

Artxandatik Mandoia (639 metro) mendira joko dute. Pistaren bidegurutze batera jaitsiko dira eta ondoren Apario mendia (408 metro) igoko dute. Bertatik Igorre aldera jaitsiko dira, Urkizu auzotik errepidea gurutzatzeko.

Ondoren, mendi-mazela batetik igoko dira eta Aratuneko

auzora joango dira, gero Obako auzora iristeko. Azkenik Balzolako auzoko San Lorenzo baselizara iritsiz amaitutzat emango dute ibilbidea. Guztra 28 kilometro egingo dituzte eta zazpi bat orduko ibilbidea izango da.

Izena emateko 943 69 44 58 telefonora deitu behar da edo Aizkardiren egoitzara azaldu. Bihar izango da azken eguna horretarako. Irteera goizeko zazpian izango da Olaederra kiroldegitik.

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA

Kirolari buruzko hitzaldia gurasoentzat

Jesusen Bihotza Ikastolak gaur arratsaldean egingo den hitzaldi-solasaldira gonbidatzen ditu gurasoak. *Kirolak bizimodu osasuntsuan daukan garrantzia* izango da landuko duten gaia. Iñaki Arratibel kirol sendagileak emango du hitzaldia. Gurasoek izan ditzaketen zalantzak eta kezak argitzeko aukera ere izango dute. Hizlariak bere azalpena euskaraz egingo du eta, aldi berean, gardenkiak gaztekeraz proiektatuko ditu. Gurea antzokiko erakusgelan izango da solasaldia, 15:15etik 16:45era. Antolatuzaileek Villabonako Udalarri eskerrak eman nahi dizkie era horretako ekintzak antolatzeko aretoa uzteagatik.



Eider Imazek emandako hitzaldiaren une bat. HITZA

ADUNA ▶ HAUTESKUNDEAK

Batasuneko Eider Imazen hitzaldia

Eider Imazek hitzaldia eman zuen Adunan Batasunaren izenean pasatu den asteburuan. Hitzaldira 20 herritar inguru hurbildu ziren. Batasunak Anoetan egindako *Orain herria, orain bakea ekarpena*. Ibarretxe planari emandako hiru botoak, Nazio Eztabaidagunea, hauteskundearen aurrerapena, Aukera Guztiak-en ilegalizazioa izan ziren aztergai. EAJ alderdiari kritika egin zitzaion ez duelako «bermatzen herritar askoren bozka emateko eskubidea eta gainera bere poliziarekin Batasunaren ekitaldi eta deialdi guztiak bertan behera uzten ari dituen». Horrela, «hauteskunde antidemokratiko hauek salatu» beste aukerarik ez dute ikusten eta EHAKren aldeko bozka eskatu zuten.

VILLABONA ▶ HAUTESKUNDEAK

Hauteskunde-mahaiak Olaederran

Villabonako Udalarri jakinarazi du bando baten bidez, igandean egingo diren EAEko Legebiltzarreko hauteskundeetan botoa emateko mahaiak Olaederra kiroldegiko kantxan jarriko dira.

Zure botoa
aralar
aro berria, bide berriak
erabaki ezkerretik

ALEGIA ▶ KULTURA

Txintxarrien kontzertu arrakastatsua

Txintxarri txiki abesbatzako 24 gaztek emanaldia eskaini dute Katalunian

NOELIA LATABURU

Txalo zaparrada beroa jaso zuten Txintxarri txiki abesbatzako partaideek, Katalunian eskaini zuten kontzertu emanaldiaren ostean. Lexcorxadoretoa izan zen eszenatokia, eta Begues herriko berrehun biztanle inguru ikusle. Urduritasuna nabaria zen gaztekoen artean, baina ondo erantzun zuten denek ere.

Tolosako Idoia Iraola gaztearen zuzendaritzapean, Txintxarri txikiko 24 abeslariak orduerdiz jardun zuten kantuan igandean, 13:00ak inguruan hasi zen emanaldian. «Garrantzitsuena egun politik igarotzea zen, baina oso ondo abestu dute hurrek», aitortu du Iraolak. Aurretik, ordea, Begueseko Montau haur abesbatzako neska-mutilak aritu ziren kantuan; eta ume hauen familiekin izan dute, hain zuzen, hartu-eman 24 alegiarrek. Kataluniarrek hiru adin taldeetan banatuta abestu zuten Anna Jacas, Mireia Ibarz eta

Jordi Llobet i Martiren zuzendaritzapean, hurrenez hurren.

Ondoren heldu zen txintxarrien txanda. Kanon batekin eman zioten hasiera kontzertuari. Jarraian, erritmoa jarri zuten *La cano de les bananes* abestiarekin. Segidan bi obra konplexu eskani zituzten, Alain Perpetuek harmonizatutako *Aldapeko* abesti herrikoa eta Javi Busto hondarribitarraren *Mantxa pio* kantu onomatopeikoa. *Jo i un pastor* izeneko Kataluniako abesti tradizionala eta *Haurtxoa seaskan* seaska kanta ezaguna ere abestu zituzten tartean.

Alegiako abesbatzak gogor egin du lan kontzertu hau ahalik eta arrakastatsuen izateko. «Kurtso hasieran dagoeneko emanaldi honen berri bagenuen eta ordutik hasi ginen prestaketa lanetan», aitortu du bere zuzendariak.

Kontzertuari amaiera emateko bi abesbatzak elkarrekin aritu ziren; hala, *Xarmengarria* kantatu zuten euskaraz eta *Joan del riu* katalanez. Honen



Txalo artean agurtu zituzten Txintxarriko umeak Beguesen. HITZA

ostean, Montau abesbatzako eta Txintxarri abesbatzako Kultur elkarteko presidenteeek opari bana eman zieten elkarri; horrez gain, Alegiako abeslari batek eskerrak eman zituen katalanez eta Alegian itxaroten dituztela esan zieten kataluniarrei.

Bartzelona ezagutzeko beta

Guztira 34 lagunek bisitatu dituzte hiru egun hauetan kataluniar lurraldeak, 24 gaztek eta 10 helduk. Egonaldia bertako abesbatzako kideen etxeetan egin dute lo alegiarrek. Hiru egun baino ez dira izan, baina batera eta bestera ibili da euskal taldea. Ostiralean ailegatu

ziren, eta jokoan aritu ziren hango gazteekin, lehen harremanak aritzeko. Ondoren bakoitza bere familiarekin joan zen. Larunbata entseguekin hasi zuten, baina turismoa egiteko ere aprobetxatu zuten eguna. Montjuic gaztelua, Bartzelonako portua, auzo gotikoa, katedrala, ranblak... txoko ezagunenez gozatu ahal izan zuten. Halaber, kataluniarren entseguetarako duten gela eza gutu zuten, bai eta musika lantzeko dituzten ohiturak ere. Eta azkenean egun handia: igandea. Kirioak dantzan zituzten, baina «emanaldia bikaina burutu zuten». Orain, esperientzia «berezi» hau noiz errepikatuko zai geratu dira denak.

IDOIA IRAOLA ▶

TXINTXARRI TXIKIKO ZUZENDARIA

«Oso pozik nago umeek egin duten lanarekin»

Irrika handiz espero zituzten ikasleek, bai eta zuzendariak berak ere, hiru egun hauek. Igaro dira dagoeneko, baina maleta oroitzapenez beteta bueltatu da etxera taldea. **Zer moduzkoa izan da esperientzia?**

Lehen aldia zen horrelako zerbait egiten genuela eta oso aberasgarria izan da denentzat. Oso pozik gaude.

Haurrentzat ere berezia izan dira hiru egunak.

Beraientzat bereziki; hango familiekin igaro dituzte egunak eta oso erlazio polita sortu da euren artean.

Errepikatuko duzue, beraz.

Datorren kurtsoan beraiek etorriko dira gurera, baina dena zehazteko daukagu oraindik.

Nola ikusi zenituen zure ikasleak emanaldian?

Oso harro nago nire hurrek burutu zuten lanarekin. Jendeak ere oso ondo erantzun zuten emanaldian.

Orain, zer proiektu dituzue bistan?

Oraingoz hitzartuta dugu kurtso amaierako festan parte hartzea, Alegian. ◀

1. bat gohiago izan
2. nire umea ekari
3. itaropena



1. lana
2. nire lagunak
3. planeta



1. enplegu inazkorra
2. etxebizitza
3. familia



1. erantzunik
2. elkarzuzketa
3. auzera



1. ongizatea
2. maiaien
3. bakea



Ilusioz begiratzen diogu denok etorkizunari. Horregatik, eskatzen dizut botoa, Apirilaren 17an. Bakea eta zure beharrei erantzungo dien garapena lortuko dituen eta euskal gizarte osoari ongizate hobea ekarriko dion egitasmo bateratuari bultzatzen jarraitzeko. Nahi duzu. Ahal duzu.

Elkarrekin egingo dugu.

eman botoa



ibarretxe.com





Feminismoaren ekarpenak mintzagai

IBARRA ▶ Kapitalismoaren eragina aztertu zuen Alizia Sturtzek pasatu den astean. Bihar, berriz, *Feminismoaren ekarpenak marxismoan* hitzaldia izango da 19:00etan Gaztetxean eta igandean 16:00etan hasita mus txapelketa egingo da. I.TERRADILLOS



Bertso festa berezia Ibarako Gaztetxean

IBARRA ▶ Lagunarteko giro bikaina izan zen Ibarako Gaztetxean Galtzaundi Euskara Elkarteak antolatutako *Zaharrak Berriz Xou* emanaldian. Ia hiru orduz aritu ziren bertsolariak eta ikusleen partehartzea nabarmena izan zen. HITZA



Andersen en ipuinak bihar Kultur Etxean

IBARRA ▶ Bihar, 17:30ean, Ibarako Kultur Etxean, Liburutegiak antolatuta, ipuin kontalari saioa eskainiko du Maite Frankok. Andersen en ipuinak kontatuko ditu bere jaiotzaren 200. urtemugan eta 4-9 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. HITZA

IBARRA ▶

Udalaren ohiko bilkura egingo da gaur udaletxean

I.TERRADILLOS

Gaur, 18:00etan Udalaren ohiko bilkura egingo da Ibarako udaletxean. Bertan aztertuko dituzten gaiak, 2005eko martxoaren 2ko ohiko osoko bilkuraren eta martxoaren 22ko ohiz kanpoko osoko bilkuraren aktak onestea, alkate dekretuak onestea, alegazioa 11 jarduera unitateari eta aldame-neko orubeari buruzko hiri plangintzako arau subsidarioen aldaketa zehatzari eta Argindegi 18-20an udal sustapeneko etxebizitzak eskuratzeko onartutako pertsonen behin betiko zerrenda izango dira besteak beste.

IBARRA ▶ KIROLA

Gimnastika eskolak maila ona eman du

Eskolarteko Gimnastika Erritmikako Txapelketa jokatu dute; Esnaola bigarrena eta Egiguren lehena sailkatu da

IÑIGO TERRADILLOS

Joan den larunbatean jokatu zen Eskolarteko Gimnastika Erritmikako Txapelketa Azkoitiako kiroldegian A mailakoen artean. Bertan izan ziren Ibarako eskolako kideak eta emaitza onekin bueltatu ziren etxera.

Ibarako Belabieta gimnastika erritmikako eskolatik Izaro Esnaolak eta Garazi Egigurenek joan ziren. Aintzane Otaegik ere joan behar zuen baina azkenean ezin izan zuen hitzor-

du garrantzitsu honetan aurkeztu.

Oso gustura etorri ziren ibar-tarrak, emaitza bikainak lortu baitzituzten; Izaro Esnaola bigarren geratu zen alebinetan eta Garazi Egiguren, berriz, lehena izan zen infantiletan. Aintzane Otaegiren hutsunea sentitu zutela azaldu zuten Ibarako gimnastika erritmikako eskolako kideek eta bera bertan izanik emaitza onak lortuko zituela seguru daudela adierazi zuten.

«Aurten beldur handiagoa-

rekin ginen, gimnastika erritmikako kodea aldatu berria izan delako eta oraindik ere geureganatu gabe genuelako», azaldu du eskolako entrenatzailea den Saioa Sorondok.

Bestalde, datorren apirilaren 23an Maider Urruzola eta Onintza Odriozola gimnasten txanda izango da. Urruzolak eta Odriozolak dakiten guztia ematen badute saio borobila irtengo zaiela eta ziur sarituak izango direnaren itxaropena du Belabieta gimnastika erritmikako eskolak.

LEABURU ▶

Tutorearen bisita izango da gaur KZgunean

Gaur 16:00etatik 20:00etara tutorearen bisita izango da Leaburuko KZgunean. Gainera, Outlook Express mintegia izango da 18:00etatik 20:00etara.

BERROBI ▶

Haur literaturaren eguna, bihar

Atzo hasi ziren Berrobiko liburutegian Haur Literaturaren Nazioarteko eguneko ekitaldiekin. Irakurgai buzurko informazioa jaso ahal izan zuten besteak beste atzo eta bihar marrazkien erakusketa eta ipuinen narrazioak edo irakurketa saioak egingo dira.

iragarki laburrak ▶



Abaltzisketa. Sei etxe atxiki, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan, hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; oso argitsua eta garabiarekin.

Belauntza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Oso

argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

Bidanía. Bi familierentzat egokituriko sei etxe salgai. Garajea, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin lehenengo solairuan. Hiru logela, bainugela eta terrazarekin bigarren solairuan.

Donostia. Gros. 70 m²-ko duplex zoragarria salgai Sagues zonaldean. Berritua.

Donostia. Donostizarran, 75 m² dituen etxebizitza salgai.

Kanpoaldera, oso eguzkitsua eta itsasora begira.

Ibarra. Nekazal ustiapenerako egokia den 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera. Bizitzera sartzeko. Garajea aukeran.

Ibarra. Laster berrikuntza izango duen eta bi solairu dituen etxea salgai. Garajea eta lur sailarekin.

Lasarte. 65 m²-ko etxebizitza salgai Oztaran kalean. Kanpoaldera.

Eguzkitsua.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 320, 400, 625 eta 922 m²-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Tolosa. Agintari kalean, 75 m² dituen etxebizitza salgai. Eraikuntza berritua. Igogailua eta trastelekuarekin.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratz propioarekin.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berrituko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera, eta oso eguzkitsua. Igogailuarekin.

Berritzeko premia.

JON REKONDO ▶ URREZKO AIZKOLARIEN LEHIAKETAKO TXAPELDUNA

«Hurrengo urteko Urrezko Aizkolarin 25eko finalerdiko txartela lortu dut»

Jon Rekondo leitzar aizkolarari gaztea
Urrezko Aizkolarien Lehiaketako
20 urtez beheko txapelalduna da

JAIONE ASTIBIA

Jon Rekondok 20 urtez beheko Urrezko Aizkolarien Lehiaketa irabazi zuen igandean. Zumaia pilotalekuan jokaturako finalean. Ugaitz Mugertzari 2 minutu eta 17 segundoko alde atera zion 20 urte bete berri dituen leitzar gazteak, ebaikitzeak zituzten sei enborrak, lau kanaerdiko eta bi 45 ontzako, 14 minutu eta 8 segundotan egin baitzituen. Hirtza berearekin aritu zen jolasean atzo, lantokira joan baino lehentxeagoan.

Zorionak lehendabizi. Igan-dekoa aurreneko txapela da, noski?

Bai, halaxe da. Baditut beste batzuk, erakustaldietakoak eta, baina hau txapelketetako aurrenekoa da.

Lortutakoarekin gustura zaudete?

Oso gustura. Gainera aurreko astean, asteartez geroztik gaizki egon nintzen eta joan edo ez zalantzatan egon ginen, eta azkenean joatea erabaki genuen. Eta, begira, ongi ateratu dena.

Baina itxuraz, denborei erreparatuta, badirudi erraz irabazi zenuela lehia?

Ni ez nintzen oso gustura aritu. Baina bera, Mugertzari ere, ez berak esan zidan gero, bete egin zela eta asnaseari ezin ziola bueltarik eman.

Hala ere sei enbor ordu laurden eskasetan ebakitzea, gaizki ere ez dago.

Ba, agudoxeago ere egin zitekeen! Esan behar bada, ordea, egurrak gogortxoak ere baziren. Baina, gainera, lasai aritu



JAIONE ASTIBIA

nintzen, enborrak ere ongi ebaki nituen eta txukun. Alde horretatik, Mugertzari gehiago kosta zitzaion lanean aritzea eta zenbait alditan enborraren gainean itzuli behar izan zuen. **Azken boladan lan asko egin behar izan duzu. Bereziki prestatu zara?**

Egia da, bai, azken aldian, aste-bukaeraero izan ditut batekoa ez bada, besteko saioak: lehiketa honetako kanporaketak, 25 urtez behiko finalerdia. Eta bai, nahiko prestaketa egin dugu, ohi baino gehiago: aizkolan astean bi aldiz aritu gara, eta gero, mendian ibili, asko,

nere martxan, bixi samarrean, ibili.

Etorkizunerako badu esanahirik irabazitako sariak?

Bai, bai. Hurrengo urteko Urrezko Aizkolarien Lehiaketan, 25 urtez behikoetan finalerdietan parte hartuko dut zuzenean. Oso garrantzitsua da. Irabaziz gero, finalerako txartela eskuratzeko aukera dago. Eta gero, udako erakustaldi saio gehiago egiteko aukera ere izanen dugu, jendeak errazago deitzen duelako, ezagutzen bazaitu eta.

Uda baino lehen baduzu beste sarietarik edo?

Ez, ez dugu txapelketa gehiagorik. Laister, udako saioekin hasiko gara.

Eta ondoren?

Hortxe abuztu erdialdera, bai Nafarroako eta baita Euskal Herri osoko txapelketak ere izanen dira, eta hor saiatuko gara, berriz. Nafarroakoan 2. mailan nago eta Euskal Herrikoan, 3. mailan ariko naiz.

Badirudi, gazte mordoxxa ari zaretela aizkolan orain?

Bai, dexente bagara: bi edo hiru badira 25 urtekoak, eta gazteagoak ere bagaude gehixeago. Ongi.

Indartuko da?

Nik uste baietz. Guk behin behin hor segitu nahi dugu lanean.

LEITZA ▶ KIROLA

Herriko futbol txapelketa antolatzekotan dira

Apirilaren 15a, ostirala, da izena emateko azken eguna; Gaztetxon egin behar da

J. ASTIBIA


Azken urteetako udaberrietan bezala, aurten ere Leitzako futbol txapelketa antolatzekotan dira eta bertan parte hartu nahi duten lagun taldeek apirilaren 15a arteko epea dute izena emateko.

Gutxienez 6 jokalariz eta gehienez 16 jokalariz osatuta, talde bakoitzak 60 euro eta beste 36 euroko fidantza ordaindu beharko omen du parte hartzeko; eta diruarekin batera, taldearen izena eta jokalariz guztien izenak argi azaltzen diren zerrenda gutunazalean en-

tregatu beharko omen dira Gaztetxon.

Parte hartzeko oinarrietan adierazten denez, «ezingo du izenik eman gabeko inork jokatu» eta «ez dute izen faltsurik onartuko».

Dena den, zenbait taldek hala eskatuta, «zenbait lege berrikusteko» bilera egingen omen dute, epea bukatu eta biharamonean, 20:00etan, Aurrera elkartearen eta erabakiak bertara «azaltzen diren taldeen artean» hartuko omen dituzte, «talde bakoitzak boto bakkara izanez», oharrean adierazita dagoenez.



**50 IBILBIDE
FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN**

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat DOAN BERRIAREKIN

Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketeta. Zuhaitz Eguna. Hiru gaztainondo eta hiru intxaurren landatuko dituzte eskolako talde bakoitzeko batek. San Martin parkean 09:30ean.
Anoeta. Festa Alternatiboaren Batzordearen bilera 19:00etan udaletxean.
Ibarra. Xepla elkartearen 25. urtemugako liburuaren aurkezpena. Bihar 20:00etan Kultur Etxean.
Ibarra. Hilaren 16rako Xabiererra irteera antolatu du Bizi nahi jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak. Izen-ematea: elkartean 11:00etatik 13:00etara.
Leaburu. KZgunean tutorea izango da 16:00etatik 20:00etara eta Outlook express ikastaroa 18:00etatik 20:00etara.
Tolosa. Delia Lopezen eskutik, *El tsunami y sus consecuencias; que se puede aprender desde otra mirada de la realidad?* hitzaldia, HHleko egoitzan (Igaralde 23) 16:00etan.
Tolosa. Asier Izagirrearen eskutik, Pico Urriello eta Txileko Torres del Brujoko eskaladei buruzko proiektzioa Oargi elkartean 20:00etan.
Tolosa. *Gerontologikoa itxi da eta orain zer?* Tolosaldearen egoera hitzaldia eta bideoa Kultur Etxean 20:00etan.
Villabona. Kirolaren garrantzia bizitza osasuntsu batean Iñaki Arratibelen hitzaldia Gurea zineman 15:15etik 16:45era. Jesusen Bihotza ikastolak antolatuta.

ZINE-KLUBA

Alegia. Ivan Zuluetairen *Arrebato* 21:30ean Gaztetxean.

ARGAZKI LEHIAKETA ▶

CABO DE GATA (ALMERIA) ▶

Carmen Garate (Tolosa).

«Argazki hau Monsul-eko hondartzan aterata dago, Cabo de Gatan (Almeria) martxoaren 31n», esan digu Carmen Garate tolosarrak. Paraje politak dira Almeria inguru horretakoak, eta gonbita egin die herritar guztiei hara joateko aukera izanez gero dudarik izan ez dezaten. Hondartza maite dutenentzat, behintzat, aproposa izan badela dirudi.



IGELDO (DONOSTIA) ▶

Iñaki Lopetegi (Tolosa).

Iñaki Lopetegi tolosarrak honako argazkia bidali du lehiaketara, eta *Igeldotik begira* jarri dio izena irudiari: «Izenburuak dioen bezala, argazki hau Igeldo menditik aterata dago. Zarautz aldera begira jarri nintzen, eta, dirudienez, ez ni bakarrik, baizik eta argazkian agertzen den txoritxo ere bai. Izan ere, eguzkia ezkutatzeko unea ikustekoa zen. Argazkia martxoaren 19an aterata dago; eta ni oporretan nengoen jada».

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoizetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

Telebistako SPOTAK

APIRILAK 13, ASTEAZKENA
tve 19.45tan

APIRILAK 14, OSTEAGUNA
tve 19.45tan

APIRILAK 15, OSTIRALA
tve 19.45tan

DIRU LAGUNTZA / AYUDA ECONOMICA
Euskadiko Kutxa / Caja Laboral
3035 0083 20 0830096411

DEMOKRAZIA eta BAKEA

BOZKATU

EHAK

GAUR LAUDIO

FP eskolaren zineman
arratsaldeko 7.30tan

OSTIRALA 15

BILBO GASTEIZ

Plaza Berrian arratsaldeko 7.30tan
Matxete plazan arratsaldeko 8.30tan